# ¡TENEMOS QUE PARAR ESTOS RECORTES!

ELA EUSKAL SINDIKATUA

# LA MOVILIZACIÓN ÚNICO CAMINO




A los recortes anunciados por el Gobierno Vasco se le suma el decretazo del 30 de diciembre de Gobierno de Madrid y el acuerdo del Consejo de Gobierno de Gasteiz. Estas son las medidas que nos quieren imponer:

- **Congelación de salario:** Los salarios de 2012 serán los recortados de 2010. Estos recortes suponen la perdida del poder adquisitivo de entre el 10 y el 13%, según sectores.
- **Suspensión de las aportaciones a fondos de pensiones.** Itzarri y Elkarkidetza EPSVs, y no fondos de pensiones. Por tanto, Gobierno vasco, diputaciones y ayuntamientos no han decidido si van a imponer este recorte. Es imprescindible que estas instituciones mantengan las aportaciones. Si no lo hicieran, supondría una pérdida del poder adquisitivo del 1,5% (el otro 1,5% ya lo quitaron en 2010 y está en la pérdida del 13%) y 7% respectivamente.
- **Suspensión del contrato de relevo** durante el año 2012.
- **Suspensión de las primas** por jubilación voluntaria.
- **Suspensión de los permisos horarios** por razón de edad que den derecho a modificaciones de jornada sin disminución de retribuciones.
- **La pérdida del derecho al complemento por incapacidad temporal por contingencias comunes:**
  - Desde el primer día de baja al tercer día de baja se abonará el 50% de las retribuciones cuando se trate de la primera baja en el ejercicio, y el 40% en la segunda baja. En la tercera baja y siguientes 0%.
  - Desde el cuarto día de baja hasta el día veinte se abonará un complemento hasta alcanzar el 75% de las retribuciones.
  - Desde el día veintiuno hasta el día cuarenta y cuatro se abonará un complemento hasta alcanzar el 85% de las retribuciones.
  - A partir del día cuarenta y cinco de baja se abonará un complemento hasta alcanzar el 100% de las retribuciones.
  - Están exentas las bajas por maternidad/paternidad, riesgo durante el embarazo, riesgo por lactancia, hospitalización, operaciones y accidente laboral o enfermedad profesional.
- **Destrucción de empleo público**. Se pretende reducir el volumen de empleo público, lo que se realiza por diversas vías: no incorporación de nuevo personal (no aprobación de nuevas OPEs. Solo ejecución de OPEs aprobadas en ejercicios anteriores); no contratación de personal temporal (salvo en casos excepcionales y para cubrir necesidades urgentes e inaplazables que se restringirán a los sectores, funciones y categorías profesionales que se consideren prioritarios o que afecten al funcionamiento de los servicios públicos esenciales). Estas limitaciones no serán de aplicación a sectores como la sanidad, la educación, o la lucha contra el fraude fiscal, donde la tasa de reposición será del 10%.
- **Aumento de la jornada a 37,5 horas semanales para el personal al servicio de la administración estatal**. No es basico por lo tanto el Gobierno vasco no está obligado a aplicarlo. De hacerlo así sería una decisión de hacer suyo este recorte.

# ES NECESARIO MOVILIZARSE PARA RESPONDER

# ¡NI UN PASO ATRÁS!

# ¡SÍ A LOS SERVICIOS PÚBLICOS!




## OTRAS MEDIDAS

❐ Las pensiones se revalorizan en 2012 un 1%, perdiendo 4,4 puntos de poder adquisitivo. A esto hay que añadir que el gobierno español no garantiza que se vaya a recuperar el poder adquisitivo que se va a perder este año.

❐ La congelación del Salario Mínimo Interprofesional supone la pérdida de 4,1 de poder adquistivo. El Salario Mínimo Interprofesional en el 2012 queda en 641,4 €.

❐ Se retrasa la entrada en vigor de determinados derechos recogidos en la ley de dependencia. El reconocimiento expreso del derecho a las prestaciones por dependencia de quienes tengan la calificación de "dependencia moderada" no se producirá en 2012. Esto afectará en Hego Euskal Herria a unas 10.000 personas.

❐ Nuevo retraso en el aumento de la duración del permiso de paternidad. Como ocurrió en 2011, tampoco en 2012 se producirá el previamente aprobado incremento del periodo del permiso de paternidad, que seguirá siendo en 2012 de 13 días.

## CONCLUSIONES

■ El contenido de las medidas y el modo en el que se han adoptado atacan gravemente la negociación colectiva, nuestro intrumento más genuino para mejora de nuestras condiciones laborales y defensa de nuestros derechos.

■ El gobierno del Estado y el Gobierno Vasco han aprobado una serie de medidas antisociales, con las que pretende que la rebaja del déficit público se haga a costa del recorte de las coberturas sociales, de las condiciones de trabajo del personal al servicio de la administración, y de la destrucción de empleo público, lo que repercute en un empeoramiento de la calidad de los servicios públicos.

■ Con estas medidas el gobierno estatal está recortando nuestra capacidad de negociar en Hego Euskal Herria. Es inaceptable la sumisión del Gobierno Vasco antes estas medidas. El gobierno de Gasteiz está utilizando estas medidas como coartada para imponer recortes en la CAPV.

■ Estos recortes son solo un primer paso. Se anuncian más: reforma laboral y de negociación colectiva, nueva reforma de las pensiones, los que se recojan en el proyecto de presupuestos de 2012 que se presentará en marzo, etc. Ni siquiera se garantiza que la congelación de salarios se quede ahí, ya que el gobierno español reconoció en la Mesa de "negociación" que puede haber más recortes salariales para 2012.

■ Estas políticas suponen un empobrecimiento generalizado de la mayoría de la población y de ninguna manera posibilitan la salida de la crisis. Suponen más paro, más desprotección social.

■ ELA hace un llamamiento al conjunto de las administraciones de Hego Euskal Herria para que opten por una vía diferente a la de los ajustes, y a que no hagan seguidismo de la política de congelación salarial y de destrucción de empleo público aprobada por Rajoy.

■ El que el Gobierno Vasco plantee la provisionalidad de estas medidas se debe a la presión de trabajadores y sindicatos.

■ Que estas medidas se retiren, no vayan más allá o la presión social por imponerlas dependerá de nuestra respuesta y nuestro trabajo. En nuestras manos está el salir a la calle, responder a estas medidas y hacer que los gobiernos cambien sus políticas.

**Para hacer efectiva nuestra presión vamos a realizar las siguientes movilizaciones:**

■ El 26 de enero, manifestaciones en Gasteiz, Donosti y Bilbo, a las 18:30 horas.

■ El 4 de febrero manifestación en Bilbo a las 18:00 horas.

■ El 9 de febrero, 4 horas de paro con manifestación en las 3 capitales a las 12:30 horas.

Tenemos que llenar las calles. Es nuestra responsabilidad. No podemos permitir que sigan por este camino. Tenemos que forzar el cambio de las políticas y esto sólo será posible con la presión social que hagamos entre todos y todas.

# MURRIZKETA HAUEK GELDITU BEHAR DITUGU!

ELA EUSKAL SINDIKATUA

# MOBILIZAZIOA BIDE BAKARRA!




Eusko Jaurlaritzak aurrekontuei lotuta iragarririko murrizketei, abenduaren 30eko Madrilgo dekretazoa eta Patxi Lopezek urtarrilaren 10eko gobernu kontseiluan harturiko neurriak gehitzen dizkiete. Hauek dira inposatzen dizkiguten neurriak:

- **Soldata izoztea** (aurrez murrizturik ditugula kontutan hartuz). Beraz 2012an 2010eko murrizturiko soldatak inposatzen dizkigute. Eroste-ahalmenean %10-13 galtzen dugu. Honetaz gain, martxoan murrizketa berriekin inposatzeko aukera irekitzen dute.
- **Pentsio fondoetara ekarpena etetea.** Itzarri eta Elkarkidetza pentsio fondoak izan beharrean BGAE-EPSVak direnez Eusk Jaurlaritzak, foru aldundiek eta udalek ez dute oraindik erabaki murrizketa hau inposatuko duten ala ez. Ekarpenak mantentzea ezinbestekoa da. Hala ez egitekotan, murrizketa honek %3 eta %7ko soldata galera suposatuko luke.
- **Errelebo kontratua etetea.** 2012an, eta aurrerantzean ikusi beharko, ezingo dira errelebo kontraturik egin.
- **Jubilazio primak etetea.** 2012an, eta aurrerantzean ikusi beharko, ez da primarik izango jubilatzeagatik.
- **Gaixotasun arruntagatik edo lanetik kanpoko istripuengatiko bajak ez dira bere osotasunean konpentsatuko:**
  - 1go egunetik 3. egunera: soldataren %50a ordainduko da (1go baja eskaeran); 2. baja eskaeran %40; eta 3. baja eskaeratik aurrera %0.
  - 4. egunetik 20. egunera: soldataren %75era arte.
  - 21. egunetik 44. egunera: soldataren %85era arte.
  - 45. egunetik aurrera: soldataren %100.
  - Salbuetsita daude: Amatasun/aitatasun baja; haurdunaldi arriskua; edoskitzaro arriskua; ospitalizazioa; ebakuntza; lan istripu edo gaixotasunak.
- **Ordezkapenak ez dira egingo edo azken urteetako murrizketak aplikatuz egingo dira.**
- Enplegu berria sortzeko aukerak guztiz mugatzen dira eta ondorioz enplegu publikoa suntsitzen da. 2012 aurretik onarturik dauden EPEak atera beharko lirateke, baina hemendik aurrera hori guztiz mugatua geratzen da (Hezkuntza eta Osakidetzan galtzen diren lanpostuen %10a bakarrik beteko da)
- **65 urtetik gorakoek ezingo dute lanean jarraitu.** Oso kotizazio baxuak dituztenek pentsio miserable batekin erretiratu beharko dute.
- **Lanaldia 35 ordutatik 37,5 ordutara luzatzea Estatuko administrazioan lan egiten dutenentzat.** Neurri hau ez da oinarrizkoa, beraz Eusko Jaurlaritzak ez dauka aplikatzeko beharrik eta horrela egin badu murrizketa neurri hau ere bere egin nahi duelako da.
- **Adinagatiko lanaldi murrizketak etetea.**

# MOBILIZAZIOA BEHARREZKOA DA ERANTZUTEKO

# ATZERAPAUSORIK EZ!

# ZERBITZU PUBLIKOAK GARATU!




## BESTELAKO NEURRI OROKORRAK:

❒ Pentsioetan %1 besterik ez dituzte igotzen eta 2011an izoztuak egon dira. 4,4 puntuko eroste ahalmena galtzen da.

❒ Lanbidearteko gutxieneko soldatak 2012an izoztu egiten dute (641,4 €).4,1 puntuko eroste ahalmena galtzen da.

❒ Dependentzia legean murrizketak. Dependentzia moderatua dutenei ez zaie prestazioa onartuko. Hego Euskal Herrian egoera horretan aurkitzen diren 10.000 pertsonek ezingo dute diru laguntza hau jaso.

❒ Aldez aurretik onarturiko aitatasun baja ez da luzatuko. Onarturiko hilabetea izan beharrean 2012an 13 egunekoa izaten jarraituko du.

## ONDORIOAK

■ Neurri hauek hartu diren moduan eta edukiak negoziazio kolektiboa bera hankaz gora jartzen dute eta inoizko modurik gogorrenean erasotzen diete langileok gure lan-baldintzak eta eskubideak defendatu eta negoziatzeko daukagun tresnarik baliotsuenetarikoari.

■ Espainiako Gobernuak eta Eusko Jaurlaritzak hainbat erabaki antisozial hartu dituzte, eta horiekin defizit publikoa murriztu nahi dute, baina gizarte-estaldurak murriztuz, zerbitzu publikoetako langileen lan-baldintzak okertuta eta enplegu publikoa suntsituz; horrek guztiak kalte egiten dio zerbitzu publikoen kalitateari. Oso eraso larriak dira gure eskubide eta lan-baldintzetan, zerbitzu publikoetako langileak kriminalizatuz, pobretuz, duintasunez erretiratzea oztopatuz, gaixorik ere lanera joatera behartuz edota aitzakia horrekin soldata murriztuz, gehiago lan egitera behartuz, lan-kargak handituz, enplegua suntsituz... Azken finean zerbitzu publikoetako langileak erasotuz eta zerbitzu publikoak eta bertako kalitatea murriztuz.

■ Espainiako gobernua Hego Euskal Herrian negoziatzeko dugun ahalmena mugatzen saiatzen ari da oinarrizko neurri eta dekretuen bidez, honek suposatzen duen erasoarekin euskal negoziazio esparruarentzat. Eta honi lotuta onartezina da Eusko Jaurlaritza neurri hauen aurrean azaltzen ari den morrontza. Are gehiago, prime-ran datozkio neurri hauek Espainiako gobernuak ezartzean horren aitzakiarekin hemen aplikatzeko.

■Murrizketa hauek lehen urratsa besterik ez dira. Beste batzuk eta askoz ere gogorragoak iragarri dituzte: erreforma laborala eta negoziazio kolektiboarena, pentsioen erreforma berria, aurrekontuen murrizketa handiagoa datozen asteetan eta martxoan plazaratuko duten 2012rako aurrekontuen proiektuan... Ez da ziurra soldaten izoztea bere horretan geratuko denik ere, espainiar gobernuak murrizketa handiagoak egiteko bere asmoa garbi azaldu baitu.

■ Politika eta erabaki hauekin herritar gehienak pobretu egingo dituzte eta inola ere ez da krisia gaindituko.

■ ELAk dei egiten die Hego Euskal Herriko administrazioei murrizketen bideari uko egin diezaioten eta ez dezaten onartu Rajoyren soldatak izozteko eta enplegu publikoa suntsitzeko politika.

■ Eusko Jaurlaritzak neurri hauek probisionalak direla esatea langile eta sindikatuok egin dugun presioagatik da, neurri grabeagoak ez hartu izana eta murrizketen propagandarik ez egitea gure lanaren ondorio da. Neurri hauek atzera botatzea, ez areagotzea edota hartzeagatik presio sozial handia izatea guk egiten dugun lanaren eta ematen dugun erantzunaren baitakoa izango da. Gure esku dago kalera irten, neurri hauei aurre egin eta gobernuak politikak aldatzera behartzea.

### Mobilizazioa beharrezkoa da:

■ Urtarrilak 26, manifestazioak Gasteizen, Bilbon eta Donostian, arratsaldeko 6:30etan

■ Otsailak 4, manifestazioa Bilbon, arratsaldeko 6:00etan.

■ Otsailak 9, 4 orduko paroa Gasteizen, Bilbon eta Donostian. Manifestazioak 12.30 etan.

Kaleak bete behar ditugu. Gure erantzukizuna da. Gure esku dago kalera irten, neurri hauei aurre egin eta gobernuak politikak aldatzera behartzea.